

IBILBIDE AKADEMIKO-PROFESIONALAK PREKARIZAZIO ESTRATIFIKATUAREN GARAIAN. MERITOKRAZIA AUZITAN

Tesiaren egilea: Harkaitz Zubiri Esnaola

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Soziologia Saila

Tesi-zuzendaria: Imanol Zubero Beaskoetxea

Tesiaren laburpena:

Hierarkia soziala nola ekoizten den aztertu nahi genuen gure tesi-lanean. Ondorioz, fenomeno hori ikertzeko aukera emango zigun eremu bat hautatu genuen: ibilbide akademiko-profesionalak (IAPak). Leku eta une jakin batera zedarritu genuen azterketa: Donostialdean 30 urte inguru zeuzkatenen IAPak.

Elkarrizketa sakona izeneko teknika kualitatiboa erabili genuen azterketarako. Teknika kuantitatiboek kopurua ikertzen laguntzen duten bitartean, teknika kualitatiboek fenomenoaren sakonera aztertzeke balio dute. Elkarrizketa sakona aproposa da gai pertsonalak edo publikoki adierazteko zailagoak diren gaiak aztertzeke, eta, bidez batez, erakunde sozialen dinamika ikusezinenak analizatzeko. Elkarrizketatuak aukeratzeko elur-bolaren teknika erabili genuen: elkarrizketatu potentzialarentzat konfiantzazkoa den pertsona baten bitartez irisarazten da elkarrizketa-proposamena, eta elkarrizketatutako pertsoneri laguntza eskatzen zaie elkarrizketatu potentzial gehiago erakar ditzaten. Espektrua sozial ahalik eta zabalenera ailegatzeko, hiru irizpide ezberdintzaile hartu genituen aintzat: ikasketa formalen maila, diru-sarrerak eta generoa. Mota guztietakoak elkarrizketatu genituen. Saturazio-puntua deitzen den unea (jaso nahi dugun informazio guztia jaso dugunean eta jasotzen ari garen informazioa errepikatzen hasten denean) 31. elkarrizketan iritsi zen.

IAPen nondik norakoak azaltzeko ohikoa da meritokraziaren diskurtsoa, hots, norberaren posizio soziala soilik meritu indibidualetan oinarritzen dela esatea. Meritokraziaren aldeko argudioa garbia da: hierarkia soziala justiziazkoa eta mesedegarria da, zeren, batetik, gaitasuna, ahalegina eta ondo egindako inbertsioa saritzen baitira, eta, bestetik, gizarteek dauzkaten baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean erabiltzea sustatzen baita, inork alferkerian erortzeko tentaziorik izan ez dezan. Diskurtso hau oso hedatua dago hezkuntza-sisteman eta lanaren munduan, besteak beste.

Aitzitik, ikertu ditugun IAPetan norbanakoa funtsezko faktorea den arren, inondik inora ez da protagonista isolatua. Lau erakunde sozialen esku-hartzea erabakigarria da ikertu ditugun IAPetan: norbanakoa da horietako bat, baina

berarekin batera funtsezkoak dira familiaren estrategia, hezkuntza-sistemaren izaera eta enpleguaren munduaren egoera. Lau erakunde horietako bakoitzaren baitan gatazka da nagusi, eta, halaber, lau erakunde horien arteko negoziazio-harremana etengabea da ibilbide akademiko eta profesionalen garapenean.

Dinamika hauek identifikatzeak ez du esan nahi arazoak fatalismoz hartzen ditugunik. Justu kontrakoa da. Arazoak ikerketaren bitartez azaleratzeak lagundu egin dezake justiziazkoak ez diren fenomenoak aldatzen. Ezagutzen ez dugun arazo bat gainditzea baino erronka zailagorik ez dago. Mahaigaineratu dugun arazoa behintzat begien bistan daukagu, badakigu zein den haren izaera (neurri batean behintzat), eta, ondorioz, diagnostiko horretan oinarritu gaitzke ekimen eraldatzaileak sortzeko eta abiarazteko.